




Pertsona guztiak edonon!

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

Pertsona guztiak edonon


STEE-EILAS

Relaciones en igualdad



Pertsona guztiak edonon!

“PERTSONA GUZTIAK EDONON!”

Badakigu gizon ala emakume jaiotzeak, gizon gehientzat abantaila eta pribilegio batzuk dakartzala eta emakumeentzat aldiz, arlo publikoan eta pribatuko espazio batzuetan hartzen dituzten lekuei buruz dihardugunean, desabantailak eta zailtasunak.

Ezberdintasun honen kontra borrokatzeko instituzio ezberdinak daude eta legegintza mailan eta formalean lorpen handiak eman badira ere, jokabide matxistak behin eta berriz errepikatzen dira oraindik gizarte maila guztietan, eskola barne.

Eskola mistoak eta unibertsalak berdintasun printzipioa hezkuntza programazioan eta garapenean txertatzeko beharrezko guztia ez du inbertitu. Eskola sexismoa ezkutukoa, isilpekoa eta agerigabekoa denez antzemateko zaila da eta androzentrismo eran azaltzen da. “Maskulinoa” denenetik eratorriak eta irakasteko egokiagoak bezala hartzen diren ezagupen, arau, jakintza, jarrera, trebetasun, abilezia, hizkuntza eta balioengan du eragina androzentrismoak. Emakumeak ez dira aipatzen ezta ikasten ere. Emakumeek bai iraganean bai gaur egun egindako lana ez da ezagutzen eskolan, ez da kontutan hartzen eta honen eraginaren ondorioa da neskak euren burua ez dutela islatua ikusten eta mutilak giza egintza osoaren protagonistak sentitzen dira. Hau da, neskek ala mutilek burutzen dutena ez da era berean ikasten.

Eskola sexismoak neskak erreferentzia propiorik gabe uzten ditu eta emakumez betetako eskolak (irakasleak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak, amak eta ikasleak) balio gabetutako eredu “femenino” horietatik aldentzera gonbidatzen ditu mutilak .

Horregatik guztiagatik, hezkidetzan oinarritzen den eskolaren alde lan egitea ezinbestekoa da neska-mutilen ekarpenak baliokide gisa kontutan hartzen dituen. Hezkuntza komunitatean parte hartzen duten guztientzat errespetuan, erantzunkidetasunean, autonomian, errekonozimenduan eta konfiantzan oinarritutako harremanak helburu dituen eskolaz dihardugu.

Honek guztiak dakarrena zera da, zalantzan jartzea generoari sozialki ezarritako mugak eta estereotipoak, gizasemeak hain ondo islatzen dituen eredu maskulino horiek eta emakumezkoak geratzen diren txokoetara egokitzea makurtzen dituen eredu inbaditzaileak kolokan jartzea dakar aldean.

Eta generoei gizarte mailan dauden mugak kuestionatzea suposatzen du, horiekin gizonak ondo identifikatzen dira eta emakumei bakarrik gelditzen zaiena da rol erasotzaile horiek uzten dituzten hutsak betetzea.

Ikas unitate berri honek, indarrean dagoen eredu androzentrikoa aldatzeko aukerak asmatzen lagunduko duen baliabide berri bat izan nahi du. Berdintasuna ez da berez ikasten, era sistematikoan eta esplizituan landu behar da.



Pertsona guztiak edonon!

ABIAPUNTUA

Errealitatek ateratako abiapuntu desberdinak egon daitezke. Garrantzitsua da irakaslea adi egotea ikasleen arteko elkarrizketa, iritzi, jakin-minetara baita egunkari, irrati, telebista... edota egunerokotasuneko gertakariei erne egotea gai honi dagokionez eta hori bera planteatzea adinari eta ikasle taldeari dagozkion egokitzapenak eginez.

Gelan bizi izan den egoeraren bat, asanbladan gai honekin lotuta irakasleak egingo dituen galderak beraien egunerokotasunarekin lotutakoak, ipuinen bat, telebistako serieak, pelikulak...Garrantzitsua da zuzenean beraiek bizi dutenarekin lotzea.

HELBURU OROKORRA

Pertsonak betetzen ditugun espazioak zein ogibideek generorik ote duten hausnartu eta ikertzea, errealitatearen ikuspuntu kritikoa garatuz, genero estereotipoek aukera askatasuna mugatzen dutela ohartzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Pertsonak gure egunerokotasunean betetzen ditugun espazio publiko zein pribatuei buruz hausnartzea, hauek aztertuz, errealitate estereotipatuaz jabetzeko.
- Ogibide desberdinei buruz hausnartzea, ingurunean dituztenak aztertuz, errealitate estereotipatuaz jabetzeko.
- Feminizatuta edo maskulinizatuta dauden espazio zein ogibideetaz ohartzeko, hauek aztertuz, egoera diskriminatzaileak direla konturatzeko.
- Edozein pertsona, sexuari erreparatu gabe, edozer lanbidetan aritzeko eta edozein espazioa betetzeko gai dela ulertzea, adibide ez estereotipatuak ikusiz, sexu estereotipoak gainditzeko.
- Aukera ez estereotipatuz jabetzea, sozialki "ez dagozkien" lanbideak aukeratu dituzten pertsonak ezagutuz, errealitatea alda daitekeela ohartzeko.
- Errealitatea ez dela horrela naturalki ulertzea, garaiak aldatzen joan direla ohartzuz, oraindik genero diskriminaziorik gabe bizitzeko aldaketak eman behar direla konturatzeko.
- Errespetuzko, laguntzako eta elkarlanerako jarrerak eta ohiturak garatzea, elkarrizketaren bidez, bere nahi eta beharrak ulertarazteko eta besteen behar eta eskakizunetara egokitzeko.

LANTZEN DIREN GAITASUNAK

- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko gaitasuna.
- Kultura artistikorako gaitasuna

EDUKIAK

- Espazio eta ogibide desberdinen identifikazioa.
- Lanbideetan emakume zein gizonen rolen azterketa.
- Elkarrizketarako oinarrizko arauen ezagutza.
- Jasotako informazioaren irakurketa kritikoa.
- Emakume eta gizezkoen arteko bereizkeria egoerak antzematea.
- Ogibide desberdinetan aritzeko beharrezkoak diren ezaugarriak ezagutzea.
- Ogibideei buruzko usteak generoari dagokionez.
- Lanbideak aintzat hartzea estereotipo sexistak bazter batera utziz.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, besteen iritzia kontutan hartuz.
- Elkarrizketetan parte hartzea.
- Adostasunera iristeko gaitasuna.





Pertsona guztiak edonon!

JARDUERAK

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

1. ESPAZIOAK ETA NORK OKUPATZEN DITUEN EZAGUTZEN DUGU.

Materiala: STEE-EILASeko kartela, espazio publiko zein pribatuko argazki desberdinak, neska/mutilen siluetak.

Denbora: Saio bat

Taldekatzea: Talde handian.

Garapena:

1. Irakasleak kartela aurkeztuko du, bertan agertzen diren espazio desberdinen inguruan hitz egingo da (lekuak, eraikinak) eta ezagutzen dituzten beste batzuk aditzera emango dira.
2. Argazkiekin zein marrazkiekin irakasleak arbelean aurkeztuko ditu. Ikasleek neska eta mutilak irudikatzen dituzten siluetak erabiliko dituzte eta espazio desberdinetan itsatsiko dituzte, beraien ustetan leku horiek nortzuk (emakumeak edo gizonak) betetzen dituzten arabera.
3. Arrazoiak azalduko dituzte eta ea egokiak iruditzen zaizkigun eztabaidatuko dugu.

2. GURE ESPAZIOEN INGURUKO HAUSNARKETA.

Materiala: Kartulinak, birziklatzeko gauzak (tetrabrik...)

Denbora: Saio bat edo bi

Taldekatzea: Talde handia eta talde txikiak.

Garapena:

1. Ikasleei gertukoak dituzten espazioak iradokitzea proposatuko diegu eta zerrenda bat egingo dugu (etxea, patioa, gela, polikiroldegia, psikomotrizitatea).
2. Irakasleak lan talde txikiak antolatuko ditu eta talde bakoitzak, birziklatzeko material eta kartulinekin, aukeratutako espazioaren baserik gabeko maketa egingo du.
3. Egindako maketarekin irakasleak ikasleei, nola mugitzen garen eta espazioa nola okupatzen dugunaren inguruko ikerketa egitea proposatuko die.
4. Ikasle bakoitzak lankide bat aukeratu eta ikertuko du, espazio desberdinen maketetan bere ibilbidea marraztuko du espazio horretan nola mugitzen den simulatuz (patioa, gelako txokoak, psikomotrizitatea...)
5. Ibilbideak maketetan oinarri bezala jarritako paperean margotuko dira ikasle bakoitzak egiten duen ibilbidea irudikatuz. Ibilbidea neska edo mutil batek egin badu bereizteko kolore ezberdinak erabiliko dira.
6. Behin lana bukatuta klasean desplazamendu ezberdinak konparatuko ditugu eta gai hauen inguruan eztabaidatuko dugu:
 - Zergatik espazio batzuk ez dira okupatuak izan.
 - Asko erabilitako espazioak
 - Espazio bakoitzean jokatzeko erak.



Pertsona guztiak edonon!

3. ZEINTZUK DIREN NAHIAGO DITUGUN ESPAZIOAK ETA ZERGATIK?

Materiala: Horma-irudia sarrera bikoitzeko taularekin (espazioak eta ikasleak), bi koloretako gometsak.

Denbora: Saio bat

Taldekatzea: Talde handia

Garapena:

1. Irakasleak sarrera bikoitzeko taularekin horma-irudi bat aurkeztuko du non ikasleriak lehenengo saioan aipaturako espazioak zein izenak agertuko diren. Ikasleei zer espazio nahiago duten okupatzea aukeratzeko eskatuko zaie. Neska eta mutilentzat kolore ezberdinetako gometsak erabiliko dira.

4. ESPAZIO DESBERDINAK OKUPATZEKO LANBIDE EZAUGARRIAK.

Materiala: STEE-EILASeko kartela, internetetik ateratako materialak, kartulinak, argazkiak.

Denbora: saio bat edo bi

Taldekatzea: Talde handia eta talde txikiak.

Garapena:

1. Gizartean dauden espazio ezberdinak aukeratu eta horien inguruan ikertu.
2. Behin aukeratuta, leku horiek zein lanbide okupatzen duten eta lanbide bakoitzeko ezaugarriak ikertuko dira.
3. Bildutako informazioarekin, irakasleak taldeak antolatuko ditu eta talde bakoitzak aukeraturako espazio bati buruzko horma-irudi bat egingo du.
4. Talde bakoitzak bere lana aurkeztuko du. Ondoren, lanbide ezberdinetako ezaugarriak kontutan hartuta emakumeek eta gizonek berdin aurrera eraman ahal duten eztabaidatuko da.

5. ELKARRIZKETA ETA ZUHAITZ GENEALOGIKOA (ESPAZIOAREN ALDAKETAK DENBORAN)

Materiala: I Eranskineko elkarrizketa.

Denbora: Bi edo hiru saio

Taldekatzea: Banaka eta talde handia

Garapena:

1. Irakasleak ikasleei bi zuhaitz genealogiko egiteko eskatuko die. Batean familiako emakume guztiak agertuko dira eta bestean gizonezkoak eta norberak izan duen ala duen lanbidea.
2. Zuhaitza genealogikoa interesatuei egindako elkarrizketa batekin joango da.
3. Plastikako kreaioa librea izango da ikasle bakoitzak nahi dituen materialak erabilia.
4. Behin lana eginda klasean aurkeztuko da eta horien inguruko hausnarketak egingo dira.
5. Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasun nabarmenak baleude konparatuko dira.



Pertsona guztiak edonon!

LHko GOI ZIKLOAK ETA BH

1. ESPAZIOAK, OGIBIDEAK: NORK BETETZEN DITU?

Materiala: STEE-EILASeko kartela, folioak, boligrafoa edo arkatza

Denbora: Saio bat.

Taldekatzea: Talde handia eta txikiak

Garapena:

1. Irakasleak unitate honetako kartela aurkeztuko du
2. Taldeari bertan agertzen diren espazio desberdinei buruz galdetuko zaio, baita agertzen ez diren baina ikasleriak ezagutzen dituen beste espazioei buru zere. Hurbilak direnak azpimarratuko dira, udaletxea, zonaldeko enpresa garrantzitsuak, anbulatorioa, eskolak, unibertsitatea, jubilatuen etxeak, tabernak, gazte txokoak, kirolekako klubak... komunitateak ondo funtzionatzeko espazio denen garrantzia azalduko da. Espazio guzti hauekin eta unitatearen garapenean zehar azalduko direnekin zerrenda bat osatuko da.
3. Ondoren talde handia talde txikitik banatuko da. Talde bakoitzak espazio pare bat aztertuko du. Eskema bat egingo dute non agertuko den: nork edo nortzuk betetzen dituzte espazio bakoitza, zertarako erabiltzen da, zenbat denboran zehar erabiltzen da, nork erabiltzen du, nork egiten du lana, zer helburua du...
4. Lehenengo ondorioak aterako dira
 - a. Generoari dagokionez desberdintasunik ba al dago?
 - b. Ba al dira besteak baino garrantzitsuagoak diren espazioak?
 - c. Zer espazio okupatzen dituzten mutilek eta zeintzuk neskek?

2.- ESPAZIOAK AZTERTUZ

Materiala: STEE-EILASeko kartela, aurreko saioko zerrenda eta ondorioak, Internet

Denbora: Bi edo hiru saio

Taldekatzea: Talde handia eta txikiak

Garapena:

1. Aurreko saioan ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta, binaka edo talde txikitik jarrita ikasleek espazioak aukeratu dituzte. Komunitaterako esanguratsuak izan dezaten saiatuko gara. Talde batek institutua aukeratu du. Informazioa lortzeko bisita desberdinak antolatu daitezke, korreo elektronikoaren bidez eskatu daitezke ezagunen edo senide baten bidez etab.
2. Lana egiteko eskema bat adostuko da, adibidez
 - a. Espazio mota: publikoa, pribatua
 - b. Espazio hori erabiltzen duten pertsonak: langileak, ohiko erabiltzaileak, erabiltzaile puntualak, betetzen diren funtzioak, funtzio horien garrantzia...
 - c. Enpresa ba da zer sail edo sekzio dituen aipatu oda, zenbat emakume eta zenbat gizon lana egiten dute, komunak diren tokiak, bulegoak, dependentziak, ordutegiak, karguak, soldadak...
 - d. Erakunde publikoa bada, udaletxea adibidez, zenbat zinegotzigo dauden eta nork betetzen dituen aipatu da, zentzu diren alkateorde, aholkulariak, administrariak, mendekoak, garbitzaileak... Zenbat gizon eta zenbat emakume dauden eta zer kargu betetzen dituzten...



Pertsona guztiak edonon!

e. Institutuan ikasleek zer espazio betetzen duten aztertuko da, patioa, kantzak, eskailerak, zer hautazko aukeratzen diren neskek eta zein mutilek... Irakasle kopurua, zenbat emakume eta zenbat gizon eta zer ematen duten, zuzendaritza taldea nola dagoen osatuta, mintegi burutzak, administrazioa, autobusa, jangela...

3. Ondorioa katerako dira

- Enpresa edo erakunderen baten emaitza esanguratsuak ateratzen dira gizon edo emakume kopuruak oso altu direlako?
- Desberdintasun hori zertan datza?, garrantzitsua al da?
- Honena urrean zere gin dezakegu?
- Institutuan espazioaren erabilpenean ba al dago desberdintasunik?
- Aztertu ez ditugun beste espaziotan zer ondorio aurreikus dezakegu?

3.- ESPAZIO DESBERDINAK BETETZEKO EZAUGARRI PROFESIONALAK

Materiala: STEE-EILASeko kartela, aurreko saioretako zerrenda eta ondorioak, Internet, folioak, boligrafoa.

Denbora: Bi edo hiru saio

Taldekatzea: Talde handia eta txikiak

Garapena:

- Aztertutako espazioetatik bertan egiten diren lanetan zentratuko gara
- Irakasleak taldeak egingo ditu. Lan desberdinak burutu ahal izateko zer ezaugarriak behar diren pentsatzeko eskatuko die ikasleei, eskatutako titulazioak, esperientzia, pertsonalitateko ezaugarriak, gaitasunak, hizkuntzak, jendetasuna, indar fisikoa, lidergoa, agintaritza...
- Ogibide bakoitzeko fitxa bat egingo dugu eta galdetuko dugu: ba al daude ezaugarriak neskenak edo mutilenak eta ez beste inorenak direnak?
- Guk egindako ikerketako datuekin konparatuko dugu.
- Komunean jarriko ditugu eta ea gizon eta emakumeen artean desberdintasun esanguratsuak dauden eztabaidatuko da.

4.- EMAKUME ESANGURATSUAK

Materiala: Internet, liburutegia.

Denbora: Saio bat

Taldekatzea: Talde handia eta txikiak

Garapena:

- Ikasleen interesetatik abiatzen saiatuko da, kirolak, filosofia, literatura, musika, zinea, politika, sukaldaritza... ikasleei eskatuko zaie ezagutzen dituzten pertsonai ospetsuak aipatzeko, errekor bat izateagatik, sari bat irabazteagatik, best-seller bat idazteagatik, pelikula bat filmatzeagatik... Irakasleak saioa bideratuko du ikasleek telebistan agertzen diren pertsonaietan bakarrik zentratu ez daitezen baizik eta beren ogibideagatik ezagunak diren pertsonaietan.
- Zerrenda bat egingo da eta eremu bakoitzeko bai gizonak bai emakumeak zenbatuko dira.



Pertsona guztiak edonon!

3. Ondoren, irakasleak talde txikiak egingo ditu eta eremuak banatuko ditu.
4. Bilaketa zehatzagoa eta zerrenda desberdinak egiteko eskatuko die, adibidez: Nobel saria irabazi duten emakume eta gizonen kopurua, mundu mailan gobernuko lehendakariak diren emakume eta gizonen kopurua, kirol desberdinetako mundu, Europa, Espainia edo Euskadiko txapeldunak, munduko pertsonen aberatsenak, mundu mailan sukaldari ospetsuenak, Oskar bat irabazi duten zinegileak, museo desberdinetako margolariak...
5. Ondorioa katerako dira
 - a. Sexuari dagokionez desberdintasun esanguratsuak al daude?
 - b. Desberdintasun hauek zertan oinarritzen dira?
 - c. Errealitate hau aldatzea posible al da?, aldatu beharko genuke?, nola?

5. ELKARRIZKETA ETA ZUHAITZ GENEALOGIKOA (ESPAZIOAREN ALDAKETAK DENBORAN) Ikus HH eta LHko jarduera

BALIABIDEAK:

- Elena Simón: "Coeducando para la igualdad"
- Elena Simón : "La igualdad también se aprende. Cuestión de coeducación"
- "Elementos para una educación no sexista. Guía didáctica para la coeducación" Seminario de Alicante
- Mariana Subirats, Amparo Tomé. "Bulones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación"
- www.mujeresquecambianelmundo.org
- Carpeta STEE-EILAS: "El trabajo tiene género" Unidad didáctica

LIBURUAK

- "Norak suhiltzaile aizan nahi du", Arantxa Iturbe
- "Biolin bat Maribeltxarentzat", Patxi Zubizarreta
- "Relato de las aventuras de Inés Saldaña y de como ayudó a Colón a descubrir América", Oliva Vicente
- "Metamorfosis", Juan Ibarondo

PELIKULAK (bigarren hezkuntzarako)

- "Quiero ser como Beckham", Gurinder Chadha
- "A las cinco de la tarde", Samira Makmalbaf
- "Amelie", Jean-Pierre Jeunet
- "Agua", Deepa Mehta (oso gogorra)
- "El color púrpura", Steven Spielberg
- "Pan y rosas", Ken Loach





Pertsona guztiak edonon!

EBALUAZIOA

Unitatearen lehen jarduera bai HH eta LHkoa eta baita DBHkoa ere, gaiari buruzko ezagupen eta aurreiritziak jasotzekoa da.

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz.

Unitatea bukatzean berriz ikasleen lana baloratuko da markatutako irizpideak jarraituz. Ikasleek ere beraien auto-ebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren... hau guztia, behar izanez gero, hurrengo jarduerarako praktika egokitu eta unitatearen bukaeran ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak:

- Ea ohartu den ogibideetan ematen den genero banaketaz.
- Ea bere hasierako usteak aldatuz joan den unitatean zehar.
- Ea errespetuz jokatu duen besteen iritziekiko.
- Ea ondorio garbiak atera dituen gaiarekiko.
- Ea jardueretan parte hartu duen.
- Ea ogibideen gaia ikuspuntu kritikoarekin ikusten hasi den.

Ebaluaziorako teknika: Behaketa

Ebaluaziorako tresnak:

- Irakaslearen egunerokoa
- Portfolio: Ikasleen lanen balorazioak eta egindako lanen aukeraketa esanguratsua jasotzen duen karpeta. Ikasle bakoitzaren historia izango da.

Ikasleen ebaluazioa unitatearekiko: Elkarrizketarako gidoia:

- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaiena eta zergatik
- Zer da ikasi dutena.
- Zerk harritu ditu gehien.



Pertsona guztiak edonon!

I ERANSKINA

Hurrengo galdeketa orientagarria da, itemak aldatzera, gehitzera ala kentzera animatzen zaituztegu taldearen ezaugarrien arabera.

1. Zure familietako emakumeengan eta haiek izan dituzten ala duten lanbideetan pentsatu.
2. Folio batean edo zure koadernoan idatzi.
 - Zein da iruditzen zaizun lanbiderik interesgarriena? Zergatik?
 - Lanbide hori garatzeko zein ezaugarri fisiko zein psikologiko izan behar dira? Berak al dauka?
 - Lanbide hori edozeinek burutu dezakeela uste al duzu? Zergatik?
 - Zein da gutxien interesatzen zaizuna? Zergatik?
3. Orain zure familietako gizonengan pentsatu eta galdera berdinak egin.
4. Erantzunak konparatu, zerbaitek atentzioa eman dizu? Zergatik?
5. Datozen egunetan zure familiako pertsona horiekin kontaktuan jartzen saiatu eta galdetuiezu:
 - Txikitan heldua izango zinenean zer izan nahi zenuen? Zergatik?
 - Asmo, ilusio eta aspirazio... berebekin hasten joan zinen? Aldaketa egon bazen, zertatik?, hori ezpada, asko borrokatu behar izan zenuen hori lortzeko? Zergatik?
 - Zein lanbidetan ibili zara orain arte? Eta orain?
 - Pozik al zaude orain daukazun lanbidearekin? Zer eraman zintudan lanbide horretara? Zergatik?
6. Zure familiaren pertsona hauen guztien historia ezagutu ondoren, zein ondorio ateratzen duzu? Zure familian desberdintasunak daude gizon eta emakumeen artean?
7. Eta zu, handitan zer izan nahi duzu? Uste duzu lan asko kostatuko zaizula lortzea? Lortzeko borrokatzeko prest al zaude?